

# ¡AGUR, AGUR BIZKARRONDO!<sup>1</sup>

Zurekin lotan, zurekin esna,  
Zurekin ¿zergatik nabill?  
Zekizulako itzak neurritzen  
Zuzen, sendo ta biribill;  
Zuregatikan nere biotza  
Zoratu nayeian dabill,  
Zurekin naidu aurrera bizi,  
Zurekin nailuke ere ill.

Zure izena etzait kendutzen  
Beñere begietatik,  
Ikusitzen det ezkerretan ta  
Oro bat eskubitatik;  
Irakurtzen det nere atzean,  
Letzen ari naiz aurretik,  
Ez naiz irten ta ez naiz irtengo  
Baratza eder ontatik.

Zure omenak kantatutzeko  
Letartak erregutzen dit,  
Bañan ¿bai-aldet, izango aldet  
Lan ontarako modurik?  
Gañera berriz etzait arkitzen  
Zure doayen laurdenik,  
¡Ausen da lana! ezin naiz asi,  
Ezin naiz egon isillik.

Sinistazazu, Indalezio,  
Zerala nere maitea,  
Beraren bidez ¿nola nai dezu  
Isillikan egotea?  
Ez egon arren nere buruba  
Jakinduriyaz betea,  
Itz argal oyek aditutzeko  
¡Arren! alchatu zaita.

Zure amaren sabeletikan  
Ziñadeneko jayoa,  
Zerorren billa abiatu zan  
Chit zuzen amoriyoa,  
Bai eta ere legundu zizun  
Eztiyarekin aboa,  
Ziñaden chori onena baño  
Kantari ederragoa.

Zu izan arren itzak neurtutzen  
Jatorritikan abilla,  
Ez-ziñaden zu arroa izan  
Baizikan guztiz umilla;  
Zure lan onak gordetzen berriz  
Mutu bat beziñ isilla,  
Orrengatika millak baterez,  
Batek baliyo du milla,

(1) Publicamos con gusto esta composicion dedicada al malogrado *Bilinch* por un jóven tolosano, de quien esperamos ver en lo sucesivo interesantes trabajos literarios.

Amoriyoan gazte denboran  
 Pasa zenduban bizitza,  
 Amoriyoan egin zenduban  
 Zori oneko ezkontza;  
 Gogoz maitatzen ari ziñala  
 Echadiari biyotza,  
 Gerta zitzaizun zori gaiztoan  
 Negarrezko eriyotza.

¡Ay! etziñaden bakarrikan ill  
 ¡Ill zan! luma bat azkarra,  
 Galdu zitzayon amoriyuari  
 Giyatzat zeukan izarra;  
 Igartu-re zan lore bat berriz  
 BOST LLAGA beziñ ederra,  
 Errenkada oyek izkribatutzen  
 Egiten dizut negarra.

Amoriyoa etzenduban zuk  
 Ez erosi ta ez saldu,  
 Baizik zitzaitzun gorputz danean  
 Sube bat bezela bildu;  
 Beraren bidez iguzu guri  
 Euskal-erriyan zabaldu  
 ¿Amoriyuak seme oberik  
 Izan ta izango aldu?

Zu izanikan amoriyuak  
 Pare-gabeko semen,  
 Zu izan ziñan itzak neurtutzen  
 Zazpi doayen jabea;  
 ¿Nola nai dezu, nola liteke,  
 Nola gentzake ordea?  
 ¿Noren gandikan, nundik nai dezu  
 Zure izena galtzea?

Zure izena galdutzen bada,  
 Galdu dira naitasunak,  
 Galdubak dira gure artean  
 Diran anayatasunak;

Galduko dira emakumeak,  
 Galduko gera gizonak,  
 Galduko dira Jaun zerukoak  
 Para zizkigun gauz onak!

¿Uste aldezu zure izena  
 Arkitzen dala galduta?  
 Zure izena ikusten degu  
 Lore ederrez beteta;  
 Gañera berriz utzi ez dezan  
 Sugarren batek erreta,  
 Urume eta Koncha ederrak  
 Erdiyan zauzka gordeta.

Amoriyua erakutsitzen  
 Umanta ziñalakuan,  
 Amoriyuan izen goyena  
 Daukazu Egiputzuan;  
 Amoriyuan sartuba zaude  
 Betiko gure goguan,  
 Eztago dudik amoriyuan  
 Gozatzen zaude Zeruan.

Ondo dakizu zuri begira  
 Daudela gure begiyak,  
 Ongi dakizu gaur nola dauden  
 Iberotarren mendiyak;  
 Ondo dakizu nola dauzkagun  
 Chit negar izugarriyak,  
 Ongi dakizu gaur zure bear  
 Dirala Euskal-erriyak.

Zuk itzegiten dakizulako  
 Guztik garbi eta ondo,  
 Egin diozu erregu onbat  
 Jaungoikoari agudo;  
 ¿Ez aldakizu zer moduz bizi  
 Izandu giñan lenago?  
 Agurtzen zaitut, Indalezio,  
 ¡AGUR, AGUR BIZKARRONDO!